

Azaroaren 25a jai eguna

Datorren **astelehenean**, azaroak 25, irakasle eguna denez, Ikastolan **jai eguna** izango da eta HH II. zikloko (3-6urte), LH-ko eta DBH-ko ikasleek ez dute eskolarik izango. Haur eskolako zerbitzua irekita egongo da.



Ikastolako Ohiko Batzar Orokorra

2024ko Ohiko Batzar Orokorra, azaroaren 28an, OSTE GUNEZ, arratsaldeko 17:00etan (lehen deialdian), 17:30ean (bigarren deialdia) eta hala badagokio, 18:00etan (hirugarren deialdian) Agerialde eraikineko 3. solairuan (Alperroburu, 5) egingo dela jakinarazten dizuegu.

Batzarreko dokumentazioa bazkide diren familia eta ikastolako langileei emailez helaraziko zaizue hurrengo egunetan. Hona hemen [deialdia](#).

Antolaketa egokia egin ahal izateko, bertaratu behar duenak, mesedez, [galdetegi hau](#) bete azaroaren 26a baino lehen.



Erle eguna

Datorren igandean, azaroak 24, Erle eguneko azokan DBH4-ko ikasleek gozogintza postua jarriko dute, ikasbidaiarako dirua biltzeko. Animatu eta bertaratu postura!



Laguntza eskaera euskarazko liburuen truke azokarako

Euskararen egunaren bezperan euskarazko liburuen truke azoka antolatuko dugu ikastolan, Agerialdeko patioan.

HH5-LH6 bitarteko ikasleak animatuko ditugu aldez aurretik euren liburu bat(zuk) ekarri eta bertan parte hartzera.

Horretarako **abenduaren 2an**, gutxigora behera **16:00etatik 17:00tara gurasoen laguntza eskertuko genuke** truke azoka aurrera eramanez ahal izateko.

Animatuko zinateke?

Kasu horretan jakinarazi diezaiozu zure seme-alabaren tutoreari edota idatzi euskarazgattunk@udarregi.eus helbidera azaroaren 29a baino lehen.



Arberoa ikastolari laguntza

Duela lau aste, Nafarroa Beherako Arberoa ikastolak su hartu zuen eta sustengu kanpaina bat abiatu du haien proiektua aurrera eramanez ahal izateko.

Internet bidez denda txiki bat ireki dute du.

[Hemen produktuak](#) Animatu eta lagundu!



Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2025eko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



HAUR HEZKUNTZA

Ez dago berririk.

LEHEN HEZKUNTZA

Euskarazko liburuen truke azoka

Euskararen asteko egitarauaren barruan euskarazko liburuen truke azoka ospatuko dugu.

Azoka hau abenduaren 2ean ospatuko da Agerialdeko patioan arratsaldeko 16:15etatik aurrera eta bertan hainbat mahai egongo dira ipuin eta liburuekin.

Azokan parte hartu ahal izateko, zuen seme-alabek etxetik euskarazko liburu bat(zuk) ekarri beharko dituzte gelara (egoera onean daudenak) eta tutoreari eman.

Tutoreak truke azoka baino lehentxeago ekarritako liburu bakoitzeko txarteltxo bat emango

die. Txarteltxo hori mahaian dauden pertsoneri emanaz nahi duten liburua hartu ahal izango dute ikasleek. Liburu bat, liburu baten truke.

Liburuak azaroak 29a baino lehen ekarri behar dira.

Zipriztindu ditzagun etxeko liburutegiak ere euskaraz!



Irteeren kobrantza

❖ **LH3: Azaroaren 25ean**, LH3. mailako ikasleei 34,50 €-ko erreziboa pasako zaie. Zenbateko hau honela banatzen da:

- **Ekainean Irrisarriland**-era egingo duten irteeraren **1. zatia: 30 €**
- Irailean **Zinemaldira** joateko autobusa: **4,50 €**

❖ **LH4: Zinemaldira** irailean egindako irteerako autobusaren kobrantza, **4,50€**, **azaroaren 25ean** egingo da kontu korrante bidez.



Irakurketa solasaldia Sutegi liburutegian

Abenduaren 23an, astelehenarekin, **11:30ean**, IRAKURKETA -SOLASALDIA izango da, 11 urtetik gorako gaztetxoentzat (LH6-DBH).

Mintzagai izango dugun liburua: Roald Dahl-en SORGINAK.

Saioan parte hartu nahi duen edonorentzat, jada eskuragarri ditugu liburuak Sutegi Udal Liburutegian.

[Horma-irudia](#)



DBH

Hizkuntza-ikastaroak atzerrian

Urtero bezala, Hezkuntza Sailak, DBH 3., 4. eta Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleak 2025eko udan atzerrian diruz lagundutako ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak eta egonaldiak egiteko eskaintza zabaldu du. Eskaerak egiteko epea **azaroaren 28an** amaituko da.

[Hemen](#) duzue informazio osoa.



Txertaketa kanpaina

Ikasturte honetan, DBH 4. mailan Difteria Tetanosaren ohiko txertaketaz gain, ohiko-kanpaina bat gehitu da, **GBParena mufilentzat** DBH2 eta DBH4. mailetan hain zuzen ere. Horretarako, **baimen orriak** banatuko zaizkie ikasleei eta **azaroaren 26rako** ikastolara **sinatuta** bueltatu beharko dute.



Irakurketa solasaldia Sutegi liburutegian

Abenduaren 23an, astelehenarekin, **11:30ean**,

IRAKURKETA-SOLASALDIA izango da, DBHko gaztetxoentzat.

Mintzagai izango dugun liburua: Roald Dahl-en **SORGINAK**.

Saioan parte hartu nahi duen edonorentzat, jada **liburuak eskuragarri** ditugu Sutegi Udal Liburutegian. [Horma-irudia](#)

